Todo es muy extraño. Pruebo a llamar a mi padre, pero justo cuando hago clic en llamar, el móvil se me apaga. Es imposible que se haya quedado sin batería, pues estaba cargado al 80%. Intento volver a encenderlo, pero se me hace imposible.

Me da muy mal rollo la situación.

Sin embargo, tras cinco minutos paralizada sin saber qué hacer, el teléfono se enciende de repente y comienza a sonar. Apresuradamente, cojo la llamada y esta vez escucho una voz ronca y burlona, que me dice: “Tranquila, pronto te llevaré con ellos”.

Convencida de que puede ser una broma, contesto: “¡Esto no es gracioso!”

Pero después de un largo e incómodo silencio, la voz me dice: “Ya queda menos”, y se cuelga la llamada.

Entro en shock. Me debato entre llamar a la policía o salir corriendo de la casa. Finalmente, me dispongo a salir.

Justo cuando tengo la mano en el pomo de la puerta, veo de nuevo en la pantalla de mi móvil una llamada entrante del número desconocido. Mi tembloroso dedo juguetea entre los dos botones: el de rechazar y el de aceptar la llamada. Sin apenas darme cuenta, mi dedo presiona el botón de rechazarla.

En ese instante, siento unas manos frías en el cuello que me impiden gritar ni hablar. Cada vez me hacen más presión. Empiezo a ver borroso y me cuesta respirar.

Entonces, al caer al suelo, la misma voz que la de la llamada me susurra: “Ya estáis todos juntos de nuevo” y esas fueron las últimas palabras que oí en esa vida.

SEGUNDO PREMIO CASTELLANO

ÁLEX SÁENZ-LÓPEZ GARCÍA

IESO del Camino  
Viana (Navarra)

# EL DESTINO. ORIGEN

En una triste mañana de lunes empezaba a salir el sol. Poco a poco el horizonte se tintaba de unos colores ambarinos que daban un poco de vida a aquel triste lugar de las afueras de Nueva York. Max, observando desde la ventana observa el paisaje, intentando no ponerse nervioso. Hacía ya dos días que había llegado allí y no aguantaba más. Él había sido secuestrado por un grupo de personas que no conocía y no sabía qué hacer.

Allí no había visto a nadie sin contar a aquellos hombres encapuchados que le traían la comida todos los días. Él estaba en el orfanato y cuando menos se le esperaba le taparon la boca y le arrastraron a la fuerza.

Al día siguiente, al despertar, le llevaron a un sitio al que no había ido antes. Por el camino vio a más niños como él, todos de la misma edad. Inmediatamente le llevaron a una gran mesa donde todos los niños estaban sentados. A su izquierda estaba sentado otro niño parecido a él. Le dijo que se llamaba Walter y le dijo algo que le dejó atónito, le dijo que todos los niños de esa mesa son especiales, incluido Max.

Todos tenía una habilidad especial, la de su misterioso amigo era la tecnología, él podía controlar todo elemento tecnológico.

Tras la comida le llevaron a un sitio extraño, parecía un banco y le obligaron a hacer algo un tanto extraño, a romper una caja fuerte ¿cómo iba a poder romper una caja fuerte él solo?

Luego le hicieron agarrar una piedra naranja con forma de diamante y sus ojos se tornaron a un tono naranja fuerte. De repente de sus manos salieron unas llamas de fuego que iluminaron toda la sala y al tocar la caja fuerte, explotó y él salió propulsado por la ventana.

## **PUBLICACIÓN DE LAS OBRAS GANADORAS**

Cuando despertó, vio a los hombres encapuchados huyendo de la policía. Él les había ayudado a robar un banco. Eso era lo que hacían los hombres con el poder que reside en los niños secuestrados y luego pensó, tengo que hacer algo no puedo dejar que esto siga así – e inmediatamente se percató de que todavía portaba el cristal anaranjado en la mano.

**LLAMARADA EXPLOSIVA**

**BIGARREN  
HEZKUNTZA  
EUZKARAZ**



1 SARIA EUSKARAZ

HUGO GIL MANSILLA

San Bizente ikastola.

Oion. (Araba)

# PABLOREN MAKINA BOTERETSUA

Pablo 12 urteko mutil bat da eta Oion izeneko herri txiki batean bizi da bere familiarekin eta Toby txakurrarekin. Herriaren kanpoaldean bizi dira, bi solairuko etxe handi batean, lorategi handi batekin. Pabloren aitak etxetik kanpo ematen du denbora gehiena, bere lanarengatik. Mundu osoan zehar bidaiatu behar du ardoa saltzen, eta ama arduratzen da etxeaz eta Pabloz.

Pablo mutil txikia da, oso argala, fideo bat bezalakoa, eta beltzarana da. Ume lotsatia da, tristea, oso gutxi hitz egiten du, oso bakartia, ez du lagunik, asko kostatzen zaio besteekin harremanak izatea eta Toby txakurrarekin egotea baino ez zaio gustatzen. Pablori munduan gehien gustatzen zaiona bere logelan makinak asmatzea da, orduak eta orduak eman ditzake, batzuetan ama arduratu egiten da egunak eman ditzakeelako bere logelatik jaitsi gabe eta bazkaltzeko eta afaltzeko bakarrik jaisten da. Pablori ez zaio gustatzen eskolara joatea, nahiz eta ikasgaiak gustatzen zaizkion, oso gaizki pasatzen du, inork ez duelako bere laguna izan nahi eta beti patioetan bakarrik egoten delako, ikaskideek intsektu arraro bat bezala ikusten dutelako, beti bere asmakizun arraroekin, eta ez duelako inoiz gehienek jokatzeko dutenera jokatu nahi, adibidez futbolekin.

Egun batean, Pablo bere logelan zegoen, eta ideia bikain bat bururatu zitzaion, etxeko lanak egiteko makina bat asmatzea. Makina hori asmatzea lortzen bazuen, bere ikaskideek kasu egingo zioten eta bere lagunak izango ziren. Eta hala egin zuen, hilabete eman zuen bere logelan eta proba askoren ondoren makina egitea lortu zuen.

Hurrengo egunean, matematikako klasera iritsi zenean, Davidi kontatu zion (bere mahaikideari). Davidek ez zion jaramonik egin, adarra jotzen ari zitzaiola eta intsektu arraroa zela uste zuen, baina Pablo tematu zen eta arratsaldean

etxera joateko esan zion, egiaztatzen. Davidek pentsatu eta etxera joatea erabaki zuen, baina ez zion sinesten.

Pablok bere logelara eraman zuen David, eta han zegoen makina, ez zen oso handia koaderno baten tamainakoa. Pablok matematikako etxeko lanen orria hartu eta makinaren gainean jarri zuen, botoi bati eman zion, txistu bat egin zuen, eta bat-batean inprimagailu bat bezala atera zen egindako etxeko lanen orria. Davidek ezin zuen sinetsi eta hurrengo egunean bere lagun guztiei kontatu zien. Pablo ospetsu egin zen eskolan, eta gehienak berarekin geratzen ziren arratsaldean makinak etxeko lanak egin ziezazkien. Pablo pozik zegoen, arratsaldero ateratzen zen bere lagun berriekin. Futbolearen ere hasi zen! Amak ez zuen sinesten, jada ez zegoen egun osoan etxean eta pozik ikusten zuen.

Egun batean makina apurtu zen, Pablok desmuntatu eta berriro muntatu zuen, baina ezin izan zuen konpondu. Egun hartan, amari esan zion gaixorik zegoela klasera ez joateko, ez zelako ausartzen ikaskideei esatera, eta are gehiago orain, denak lagunak zirela, baina arratsaldean bere lagunak etxera joan ziren etxeko lanak egitera, eta Pablok egia esan behar izan zien.

Hurrengo egunean inork ez zituen etxeko lanak egin, ez zekitelako. Hainbeste denbora igaro zen, ezen ez baitzekiten haiek bakarrik zer egin. Pablori deitzeari utzi zioten irteteko, eta dena lehengo moduan geratu zen berriro. Egun batean, Pablok negarrez ikusi zuen David matematika suspenditu egin zuelako eta Pablok ikasketetan laguntzeko eskaintza egin zion. Arratsalde hartan bertan, David Pabloren etxera joan zen eta ikasten eta etxeko lanak elkarrekin egiten aritu ziren, eta Davidek, Pabloren laguntzarekin, dena ondo ulertu zuen. Davidek lagunei esan zien, eta une horretatik aurrera, denak ez zirenez Pabloren logelan sartzen, liburutegi batera joaten ziren, eta han denek batera ikasten eta etxeko lanak egiten zituzten, eta zerbait ulertzen ez bazuten, Pablok azaldu egiten zien, eta gero denak batera joaten ziren jolastera.

Ordudanik, Pablok beste ezer ez asmatzea erabaki zuen, ez zuen lau hormen artean giltzapetuta egon nahi, munduan lagunak izatea gehien nahi zuena zen eta lortu zuen, baina ez makina asmatu zuelako, baizik eta denek ikusi zutelako Pablo ume bat zela mundu guztiari laguntzeko prest zegoena eta bihotz handikoa.

2 SARIA EUSKARAZ

**NAIARA SANZ OCHOA**

San Bizente ikastola.

Oion. (Araba)

# ZIRKULO MISTERIOA

Kaixo, Ane izeneko neska bat naiz, 19 urtekoa. Uste dut, alaia eta jatorra naizela. Oso ausarta eta langilea naizela esaten didate ere.

Zirku txiki batean egiten dut lan, nire herrian, kontortsionista bezala. Zirkua, kanpotik, marrak ditu, zuriak eta gorriak. Nahiko altua da. Barrutik oso zabala da. Eszenatokiaren ezkerreko partean, domadorearen eta magoaren gauzak daude. Atzealdean, trapezioak daude. Eta erdialdean, sabaitik zintzilik, uztaila eta zintak daude, niretzat.

Asko gustatzen zait lagunekin egotea eta margotzea. Baina gehien gustuko dudana, gimnasia erritmikoa egitea da. Txikitatik gustatzen zait, eta oso ondo ematen zaidala uste dut.

Ere gauzak ikertzea gustatzen zait, eta oso ondo ematen zait erruduna topatzea beti.

Egun batean, zirkura joaten ari nintzen, lan egitera. Iritsi nintzenean, aldageletara joan nintzen. Han, nire lagunik hoberena ikusi nuen, Uxue.

Zirkuan, trapezista bezala egiten du lan. Oso neska argia da, eta mugitua. Asko gustatzen zaio hitz egitea, oso berritsua da.

Berarengana joan nintzen, eta prestatzen ginen bitartean, gauzak kontatzen genituen. Ordua heldu zenean, aldageletatik atera, eta beste lankideekin elkartu ginen. Bakoitza bere lekura joan ginen, eta praktikatzen jarri ginen.

Bat-batean, zuzendariak deitu zigun. Denak hurbildu ginen, intriga askorekin.

Isildu ginenean, hau esan zuen:

- Atzo arratzaldean, Montecarlotik deitu zidaten, urtero ospatzen den zirkuen jaialdian parte hartu nahi dugun galdetzeko.

## PUBLICACIÓN DE LAS OBRAS GANADORAS

Hori entzun eta gero, denak saltoka hasi ginen. Montecarlon ospatzen den jaialdia, munduko jaialdirik ospetsuena da, eta guri deitu ziguten ospatzeko. Gu zirku txiki bat gara, herri batekoa, eta gutxitan egiten ditugu funtzioak herri hontatik kanpo.

Orduan Uxuek galdetu zuen denok pentsatzen ari ginen galdera:

- Eta zer esan zenion?

- Baietz, noski!!! - erantzun zuen zuzendariak. - 6 hilabete ditugu, beraz, denak praktikatzen hasi behar zarete.

Guztiak berriro gure lekuetara joan ginen, eta inoiz baino ilusio gehiagorekin, praktikatzen hasi ginen.

Bat-batean, lehoi handi bat korrika joan zen Uxuerengana. Uxue trapeziora igo zen azkar, eta horri esker, lehoiak ezin izan zion ezer egin. Domadoreak berriro bere kaiolara eraman zuenean, denak bildu ginen. Domadoreari begiratu genion, zer gertatu zen jakiteko. Domadoreak hau esan zuen:

- Ez dakit zer gertatu den. Ni lehoiaren kaiola itxi nuen, baina norbaitek ireki du. Ez da nire errua izan, benetan.

- Niri iruditu zait, Uxuerengana zihoala, baina ez kasualitatez, nire ustez, kaiola ireki duenak Uxuerengana joateko esan dio, eta lehoia kasu egin dio -esan nuen.

- Bai niri ere iruditu zait. - Eman zidan arrazoia Uxuek, horaindik, ikaratuta.

Nire buruan galdera asko sortu ziren:

Nork ireki du kaiola? Zertarako? Uxueri mina egin nahi dio? Zergatik?... Entrenamendua bukatu arte, ezin izan nuen momentu horretan pentsatzen uzteari. Aldageletara joan ginen, Uxue eta biok, elkartu ginen, eta gertatutakoari buruz hitz egin genuen. Gero bakoitza bere etxera joan ginen, baina ni Uxuekin geratu nintzen arratsaldean.

Oso kezkatuta nengoen Uxuerengatik, nire lagun hoberena delako.

Arratsaldean, berarekin nengoenean, horretaz hitz egiten ari ginen bitartean, Uxueri ideia bat bururatu zitzaion:

- Ane, zuri oso ondo ematen zaizu gauzak ikertzea, eta pentsatu dut, agian zuk ikertu ahal duzula nor izan den erruduna, eta zergatik.

- Ideia bikaina da, eta garbitzaileak 7:00 iristen dira zirkura, oraindik bi hordu ditugu.

Biak korrika joan ginen zirkura. Sartu ginenean, lehoien kioletara joan ginen zuzenean. Denbora luzean ikertu eta gero, aurpegiko margoa edo makillajea aurkitu nuen, ez nekien oso ondo zer zen, oso gutxi zelako. Hori ikusita, hiru pertsona bururatu zitzaizkidan: Aurkezlea, pailazoa eta magoaren laguntzailea. Horiek ziren makillajea edo aurpegiko margoa erabiltzen zuten bakarrak. Zirkutik atera ginen, Uxueri aurkitu nuena kontatzen nion bitartean.

Nire etxean, zergaitik egin zuten hori pentsatu nuen, eta hau okurritu zitzaidan: Magoaren languntzailea, ez zen askotan ateratzen, eta orduan, Uxue lesionatzen bazen bera egin ahal zuen trapezista bezala eta gehiago aterako zen.

Aurkezlea, neska serioa da, eta Uxuerekin ez da batere ondo moldatzen.

Baina, pailazoak ez zituen arrazoirik.

Hurrengo egunean, zirkura, langile batzuk etorri ziren, Uxueren trapezio bat konpontzeko. Langileetako batek eskailera batean igota zegoen, eta behean zegoen langileari erabiltzen ari zen tresna bota zion. Baina gaizki kalkulatu zuen, eta Uxue erortzen denean mina ez egiteko dagoen sarearen gainean erori zen. Bat-batean, sarea erori zen. Denak susto handia ereman genuen. Eta pentsatu nuen: Zer gertatuko zen Uxue sare horren gainean salto egingo balu?

Norbaitek Uxueri mina egin nahi zion, eta oso argi zegoen. Oso kezkatuta nengoen, eta horregatik inguru horretatik ikertzen asi nintzen berriro. Ez nuen ezer aurkitzen, eta nire lekura joateko zorian nengoenean, sarea mugitu nuen nahi gabe, eta zerbait beltza ikusi nuen lurrian. Hurbildu nintzen, eta oin handi bat zirudien. Momentu horretan erruduna nor zen jakin nuen: Pailasoa. Zirkuan zapata handiak erabiltzen dituen bakarra da. Bilera bat egin genuen, eta hau esan nuen:

- Zirku honetan, pertsona bat, Uxue lesionatzea nahi du, eta horregatik, tranpak jartzen ari dizkio.

- Eta nor da?- esan zuen magoak. - Pailazoa da. - erantzun nuen.

Denak harrituta geratu ziren, eta pailazoa esan zuen:

- Txikitatik trapezista izatea da nire ametsa, eta horegatik, Uxue lesionatzen bazen, ni aurkeztuko nintzen trapezista bezala, eta horrela nire ametsa beteko nuen. Eta gainera, Montecarloko jaialdian ondo egiten banuen, trapezista bezala geratu ahalko nintzen. Barkatu.

Zuzendariak ideia bat izan zuen:

- Eta zergatik ez zarete biak trapezistak izaten?

- Bai, ideia bikaina da!!!

Eta momentu horretatik aurrera, zirkuan 2 trapezista daude, eta gure zirkua oso famatua egin zen.

**NAIARUKI**

3 SARIA EUSKARAZ

**OHIANA ANDOLLO  
MARTÍNEZ DE LAÑO**

San Bizente ikastola.  
Oion. (Araba)

# EUSKALDUNA SENTINTZEN NAIZ ETA PUNTO

1936-ko Uztailaren 17-a. Franko generala Espainan estatu kolpea eman zuen, eta Afrikatik etorritako armada batzuek lagunduz gero, Franko, Espainia diktadura bat bihurtu zuen. Alemania eta Italiaren armadekin batera, Franko hiri eta herri asko bonbardeatu zituen, eta horietako bat Gernika izan zen.

Kaixo, Leire naiz, eta hau nire istorioa da. 91 urte ditut, betiko Gernikako emakume bat naiz. Ile luzea dut, begiak urdin-urdinak ditut, eta argala naiz. Txikitatik guraso bikainak izan nituen, baina guda zibila etorritakoan, nire aita Anton, etxetik joan zen eta familian bakarrik nire ama Irune, eta ni gelditu ginen, ahizpa-nebarik ez ditudalako. Historia eta gizarteari buruz beti izan dut kuriotsitatea. Txikitan, banekien zer gertatu zen Erdi Aro osoan!! Flipantea ezta...

Gaur niretzako eta nire herriarentzako egun oso inportante bat da, izan ere, gaur (2012-ren Apirilaren 26-a) "Susko Agonia"-ren eskultura inauguratzen dute herriko plazan, eta metalezko pieza kaskar hori, guretzako, niretzako atzetik historio handi bat darama.

1936. urtean, Franko estatu kolpea eman ondoren, dena pikutara joan zen. 16 urte nituen, eta goizean nekazari gisa lan egin ondoren, Ane eta biok kalera atera ginen. Ane nire lagun hoberena zen, txikitatik gara lagunak, eta hori ez da oraindik aldatu; beti oso modernoa janzen zen, haren soineko motzekin eta estuekin beti. Nik bestetik kamuflatuagoa nindoan, oso polita ere, baina ez hain distiratsu bera bezala. Ostirala zen, eta taberna baten komunera sartu ginen. Ane ezpainak margotzen zituen bitartean nik txisa egiten nengoan, eta geroago kanpora atera nintzen, han Gorka eta Maddi itxoiten zeudelako.

Bat batean, **Eresoinka** taldearen abesti polit bat entzuten zen lokalean, eta guztiok dantzatzen hasi ginen. Ane komunetik ez zenez irteten 20 minutu igaro ondoren, hirurak joan ginen zer egiten zuen begiratzera. Komuneko atea irekitzen sailatu ginen baina zirudienez, atearen kisketa jarrita zegoen. Orduan, Gorkak, ostiko bat eman zion ateari, eta ikusi genuena harrিতuta utzi gintuen. Neska, lurrean botata zegoen, zauriak zituen bularrean, hanketan eta sorbaldan, odola komun guztiatik zegoen, komunaren lehioa irekita zegoen, Aneren ezpain-margoa konketan zegoen, zirudien, harekin ispiluan margotu zutela “VIVA FRANCO”. Maddi eta biok negarrez hasi ginen eta Gorka anbulantzia batera deitzen ari zuen, baina koberturarik ez zegoen, Jende guztia gure ingurura etorri zen, eta musika gelditu egin zen. Eta ezustekoan tabernaren atetik armadun zihoan talde handi bat sartu zen. Guztiak haien eskopetekin tirokatzen zuten, eta taberna osoa suntsitu zuten. Bitartean gu hirurak Ane hartu eta nire etxera joan ginen. Han nire ama Irune zegoen eta berak lagunduko zigun arazo hori aklaritzen bera erizaina zelako.

Etxera heldu ginen, guztiak negarrez, Ane besoetan genuela. nire ama korrika jaitsi zituen eskailerak eta Ane eta hirurok ikustean oihukatzen jarri zen. Inoiz ez entzundako oihuak botatzen zuten ahotik. Nire ama oso lasaia izan da beti, baina nire aita Anton aurreko hilabetean, etxetik joan zenetik estresatuagoa dago. Ez da etxetik ateratzen, ezta lan egiteko ere, baja bat hartu du, eta beti esaten dit euskaldunak garela eta hori ezin dugula ahaztu, eta euskalduna izatea sentimendu bat dela.

Bueno, harira noa. Egongelara eraman genuen Ane, eta sofán utzi genuen etzanda. Urduri geunden ez genekielako neska bizirik zegoen ala ez. Nire ama bitartean bere logelara joan zen, armairuan zeukan boletina hartzeko. Eskailerak behera zihoan ama, korrika, negarrez, ohiuka. Maskara atera zuen maletinatik, eta Aneri jarri zion ahoan. Minutu bat itxaron, eta begiak ireki zituen. Bizirik zegoen. Besarkada bat eman nion Aneri, negarrez hasi nintzen berriro, baina kasu honetan sakonago, indarrago. Gorka, Maddi eta Ane nire etxean gelditu ziren gau osoa, seguruagoak zeudelako.

Ez genuen lo egin inork, bueno bai, Ane pixka bat, behar baitzuen. Besteak hitz-egiten egon ginen nire amarekin, gertatu zena kontatzen eta azaltzen. Momentu batean, gure etxera heldu zen gutun bat. Arraroa zen gaueko lauretan, norbaitek ate behetik gutun bat bidaltzea, hortaz, nire ama altxatu eta gutuna hartzera joan zen. Sobrea ireki eta paper bat zegoen. Bolalumaz idatzitako testu motz bat zuen barruan:

*<<He atacado Guernika, y esto no va a parar. De ahora en adelante he decidido que voy a poner una serie de normas que mañana a las ocho de la mañana comunicaré en el Mercado General. No voy a permitir que nadie falte a esta reunión y mucho menos unos vascos como vosotros. Porque esto es España y que no se hable más.*

*Francisco Franco.>>*

Gutuna irakurri ondoren guztiak ixo gelditu ginen, ez genekien zer egin edo zer esan; orduan guztiak lotara joan ginen.

Hurrengo egunean, zortziretan han egon ginen, nire ama, Gorka, Maddi, Ane eta ni. Giroa oso tenkoa zegoen, urduria, tristea. Une horretan, auto beltz bat agertu zen azokan, aurretik bi makil zituen, eta horietan, Espainako bi bandera zintzilikatuta. Tente jarri ginen guztiak, beldurti, uzkur. Kotxetik bi bizkartzain atera ziren, eta haren atzetik Franko deitutako diktadore madarikatu hori.

Oso luzea izan zen hitzaldia. Nik uste arau gehiegi jarri zituela, eta bata beste baina askoz txarragoa; adibide batzuk jarriko dizkizuet: Ezin zen euskeraz hitz-egin, ez ginela euskaldunak berriro izango, ez ginela ezer, bakarrik txatar ontzi bat, ezin genituen izen euskaldunak izan, aldatu behar genituztela, arropa "normala" jantzi behar genuela... etab. Guztiei zapore desatsegin batekin gelditu zitzaigun ahoa.

Txarla eta gero, Ane, nire ama eta ni ibilaldi bat ematera joan ginen, aire pixka bat hartzeko. Herriko zelai batera hurbildu ginen. Anek, atzo gertatu zionari buruz, gogoratzen zen guztia azaltzen zigun. Komentatzen zigun, berak ezpainak margotzeari utzi egin zuenean, mutil bat sartu zela komuneko lehiotik, bere ezpain-margoa hartu zuela, eta ispiluan margotzen hasi zuela. Ane oihukatzen zegoen, negarrez, ispiluko nota ikusi ondoren eta atea irekitzen saiatu zen, baina mutila atearen aurrean jarri zen, eta kontrako paretara bultzatu zuen neska, gero ukabilkada bat eman ziola bularrean, eta azkenean ostiko bat hanketan. Ostiko hori eta gero, Ane ezaguera galdu zuen guztiz. Halaber, deskribapen txiki bat egin zigun mutilariburuz: ilea beltza zuen, oso txuria zen, peka asko zituen, eta begiak urdin-urdinak zituela. Une horretan nire amak eta nik begiak eta ahoa asko ireki genituen, Aneren erasotzailea ... nire aita zen!

Izugarri blokeatuak eta desubikatuak Aneren komentarioa entzun eta gero. Nik ez nuen sinisten. Eta banekien nire aita izan zela, baina ez nekien nire lagun hoberenari zerbait egingo ziola. Nire atia asko maite gintuen nire ama eta ni, baina Frankoren aldekoa zen, eta guri mina ez egiteagatik, etxetik joan zen.

Korapilo handi hori moztu zuena, garrasi handi bat izan zen. Korrika hasi ginen hirurak, garrasia sortu zen lekura, errepidera. Han mutil bat zegoen. Ilea marroia zuen, ez zen oso garaia, arropa grisa eramaten zuen, eta errepidearen erdian kokatua zegoen, hortaz, bere buruz beste egin nahi zuen. Ez nekien nor zen, ez nuen inoiz ikusi, zergatik bere buruz beste egin nahi zuen, zein zen bere bizitza... Baina banekien arriskuan zegoela, eta bere bizitza salbatu behar niola. Auto bat pasatzen zen momentu hartan, eta mutilak hanka luzatu zuen, baina nik azkarragoa izan nintzen, eta errepidea gurutzatu nuen korrika mutilari heldu arte. Kotxea gure aurretik pasa zenean, beste aldera gurutzatu nuen mutilaren eskua hartuta. Negarrez hasi ginen biok, eta mutila besarkada handi bat eman zidan, galdetzen, zergatik egin nuela hori, eta ni erantzuten, bizitza munduko gauzarik inportanteena zela, eta aprobeixatu behar genuela. Geroago, etxera

bueltatzean, berak azaldu zigun, Aimar deitzen zela, eta atzo tabernan, bere arreba hil egin zela. Hortik, urte bat pasa zen. Urte deseroso eta desatsegin bat. Ezin ginen ia etxetik atera. Janaria gutxitu zen, eta egunero gosaltzen, baskaltzen eta afaltzen genuen ogi gogorra eta artahiak; guztiak argaldu ginen, urte batean 7 kg jaitsi nituen. Apirilaren 26-a zen, baskaltzeko ogi puska hartzera atera nintzen kalera nire ama eta nire lagunekin, eta bidean, hegazkin militar bat ikusi genuen airetik. Izutu ginen. Ez genuen sinisten. Heldu zen eguna, Gernika bonbardatzen zuten eguna. Korrika hasi ginen, babesleku bat bilatzera. Geroago, hogeit hamar militar gutxi gora behera, auto militarrekin etorri ziren, eta norbaitek atera zuen burua auto batetik, nire aita zen, eta negar egiten zuen bitartean **“ASKI DA!”** esan zuen. Hegazkinetatik eta auto militarretik etorritako bala izugari ukitu zuten gure lurra, gure eraikinak, gure etxeak... Dena suntsitu zuten. Ezinezkoa, sinestezina, sinesgaitza, eta ulertezinak diren adjetibo gehiago deskribatzen zuten momentu hori. Baina ni euskalduna sentitzen naiz eta punto, eta nire herria eta kultura defendatuko dut hil arte. Eta hor gelditu ginen, zer egin jakin gabe. Bonbardaketa pasa eta gero, gure herri bireraikitzen lagundu genuen. Euskaldunak sentitzen ginelako eta punto.

**GALLITO**

AIPAMEN BEREZIA EUSKARAZ

AITANA MARAURI FERNÁNDEZ

San Bizente ikastola.  
Oion. (Araba)

# INBIDEA ETA DESKONTROLA

2025eko iraila zen. Uda amaituta, gela txukun txukun zegoen. Zuria zen, koaderno berri baten orrialdeak bezala. Paretan ez zeuden poster edo marrazkirik.

Ikastaro berria zen, eta Leire urduri zegoen.

Leire neska txikia zen baina oso azkarra 14 urte zeuzkan. Ile iluna zuen, ikastolara sartu aurretik zituen pentsamenduak bezala. Betaurrekoak biribilak zituen. Oso ikasle fina zen asko gustatzen zitzaion ikastea, batez ere euskara ikasgaia. Irakurketa zen bere zaletasunik gustukoena. Isila eta bakartia zen, ez zituen lagun asko baina zituen lagunak oso onak ziren, Edo berak hori uzte zuen.

Lehenengo hasteak normal igaro ziren. Hasi ziren taldeak sortzen. Leireren taldean 5 neska zeuden baina bereziena Amaia zen, txikitatik ezagutzen zuen laguna. Hasieran, planak egiten zituzten, Leire planetara joaten zen baina azterketak hasi zirenean joateari utzi zion. Berak hoberena izan nahi zuen, nota altuenak atera.... Hori dela eta taldekoak distantziatzen hasi ziren. Ez zioten deitzen, patioan berarekin egoteari utzi zioten, ez ziren berarekin klasean esertzen....Errespetua faltatzen hasi ziren arte.

Leirek oso txarto pasa zuen. Batez ere Amaia, bere lagun bereziena, horren parte zelako. Leire oso isila zenez, bere gurasoei ez zien ezer kontatu. Baina egun batean eztanda egin zuen bere notak bezala: euskarako proba batean 5 bat baino ez zuen atera. Horrek eragin zuen bere gurasoen kezka:

- Leire ondo zaude?

Leire negar batean hasi zen.

- Zer duzu?

- Taldeak alde batera utzi nau.

Gurasoak arazoa ikusi zuten eta psikologo batera joatea gomendatu zioten.

Hurrengo goizean, Leire Amaiaren gaina joan, azken batean lagun zaharrak ziren eta berarekin konfiantza handia zeukan. Amaia bere aldetik txarto sentitzen zen: beldurra zeukan. Berak piskat potoloa zen eta bera ere bai alde batera uzteari beldurra zion.

Lehenengo bi asteetan Amaia saiatu zen Leire babesten. Baina beldurrak irabazi zion: bakarrik utzi zuen Leire. Momentu horretan nahastu ziren Amaiaren beldurra eta pena. Oso gaizki sentitzen zen Leire bakarrik utzi zuelako.

Bumeran bat bezala problemak bueltan itzultzen dira. Hori sentitu zuen Amaiak. Izan ere, Leireri egiten zuten berbera berari egiten hasi ziren. Hasieran txantxak ziren, lodia zelako, gero baztertu zuten, bakarrik utzi arte...udazkenean zuhaitzak hostorik gabe geratzen direnean bezala. Neska hain sentibera zenez hau amets gaizo bat bezala zen berarentzat.

Kontuan gabe, Amaiak eta Leire egoera berean zeuden, baina biak bakarrik... Amaiak bere lagun mina abandonatu zuelako. Egun batzuetan egoera horrela mantendu zen.

Egun batean Amaia klasera heldu zenean, irakaslea heldu baino lehenago lagun horiek taldea beraren fisikoarekin iruzkinak egiten hasi ziren: txerria, lodia, ez zara atetik sartzen.... Momentu horretan Leire dena entzuten ari zen eta nahiz eta ez zen Amaiarekin hitz egiten eztanda egin zuen.

Leire beste pertsona bat zen, ez zuen garai bateko neska isila, Amaiaren alde egin zuen eta demostratu zuen bizitzarako irakaspen bat: garrantzia duenari garrantzia eman behar zaio.

**MAJINA**



**FOTOGRAFÍAS  
DE LAS  
PREMIADAS  
Y LOS PREMIADOS**






**Nora Foncea Muñoz**



**Andoni Ciaurri Moral**



**Irati Graciana Aizpurua**



**Aroa Marín Marín**




**Gaizka Arandia  
Sanz de Vicuña**



**Gorane Hernández  
Remírez**



**Anne Arazuri Yáñez**




**Lucía Carranza  
Bartolomé**



**Claudia Bricio Matute**



**Álex Sáenz-López  
García**



**Hugo Gil Mansilla**



**Naiara Sanz Ochoa**



**Ohiana Andollo  
Martínez de Laño**



**Aitana Marauri  
Fernández**



**AYUNTAMIENTO DE VIANA**  
**VIANAKO UDALA**